



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALERRIAN ERREGIMEN OROKORREKO 2 ETXEBIZITZA TASATU ESLEITZEKO PROZEDURAN ONARTUAK IZAN DIRENEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK.

-BUZTINTZURIKO ERREBALA, 4 (2023TASO.....)-

Aurrekariak:

Alkatetzak 2023ko azaroaren 24ean emandako Ebazpenaren bidez Buztintzuriko Errebala 4an kokatzen diren erregimen orokorreko 2 udal etxebizitza tasatu eta heuren gehigarriak, eta Iñaki Azpiazu Kalea 20 eta 22an kokatzen diren erregimen bereziko 3 udal etxebizitza tasatu eta heuren gehigarriak esleitzeko oinarriak onartu zituen (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 235. zenbakia, 2023ko abenduaren 7koa).

Oinarrietako laugarren atalak, zozketan parte hartzeko eskabideak egiteko azken eguna 2024ko urtarrilaren 31a zela adierazi zuen (azken hori barne). Eskakerak egiteko epealdi honetan Buztintzuriko Errebala, 4ko etxebizitza tasatuak esleitzeko prozeduran 43 eskaera aurkeztu dira.

Eskakerak aurkezteko epea amaitu eta gero, bakoitzaren azterketa egin da, prozeduran parte hartzeko oinarriak jasotako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Hala nola, baldintza pertsonalak, errolda baldintzak, etxebizitza beharraren baldintza eta baldintza ekonomikoak. Azterketa honen emaitza ONARTU ETA BAZTERTUEN BEHIN BEHINEKO zerrenda osatzea izan da, baztertuak izan direnen kasuan, arrazoiak zein izan diren argudiatuz.

Oinarriaren seigarren atalak jasotzen du behin behineko zerrendak osatu ondoren, hauek Udalaren iragarki taula fisikoan, eta bere egoitza elektronikoan argitaratuko direla. Horrez gain, Azpeitia Berritzen S.A.ren web orrian ere egongo dira erakusgai (<https://azpeitia.eus/etxebizitza-publikoak>). Argitalpenak egin ondoren, interesatuek 10 eguneko epea izango dute, edozein erreklamazio aurkezteko, bai baztertze arrazoen inguruan, edo baita aitortutako zozketan parte hartzeko zenbaki kopuruekin ados ez daudelako.

Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko dira adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriekin batera eta bide hauetako edozein erabili ahalko da:

— Aurrez aurre Azpeitiko Udaleko HAZ zerbitzuan dagoen erregistro orokorrean (Plaza Nagusia 5 lehen solairua. tfn.: 943.157.198).

— Aurrez aurre, Azpeitia Berritzen S.A.ren bulegoetan (Enparan Kalea 34 beheko (tfn.: 943.157.183).

—Udalaren egoitza elektronikoan dagoen sarrera erregistro elektronikoaren bidez (www.azpeitia.eus).

Eskumenari dagokionez, Toki Administrazioaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.artikuluak dioena ikusita (apirilaren 2ko 7/1985 Legea), **NAGORE ALKORTA ELORZA** alkateak **ERABAKI DU:**



Azpeitiko Udala

1.- Buztintzuriko Errebala, 4an kokatzen diren erregimen orokorreko 2 udal etxebizitza tasatu eta heuren gehigarriak esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen behin behineko zerrenda onartzea. Zerrenda hori eranskin moduan jaso da.

Eranskin 1: ONARTUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA.

Eranskin 2: BAZTERTUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA.

2.- Dagokigun erabakia, eta onartuak eta baztertuak izan direnen behin behineko zerrenda Udalaren Iragarki taulan, Udalaren web orrian eta Azpeitia Berritzen S.A.ren atalean argitaratuko da. Argitalpenak egin eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek hamar lan-eguneko epean erreklamazioa jartzeko aukera izango dute. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko da Azpeitiko Udalaren sarrera erregistroan (HAZ zerbitzua) edo Azpeitia Berritzen S.A.ren bulegoan. Horrez gain, Udalaren egoitza elektronikoan dagoen sarreran ere aurkeztu ahal izango da telematikoki erreklamazioa, kasu guztietan adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriekin batera.

3.- Hamar eguneko epea amaituta, aurkeztutako erreklamazioak baloratuko dira eta behin betiko zerrenda onartuko da. Partehartzaileen behin betiko zerrendarekin batera, zozketaren eguna, ordua eta lekua ere adieraziko da.

Ebazpen hau tramitekoa da, eta ez du administrazio-bidea amaitzen.

Azpeitia, 2024ko martxoaren 4a.

